

Zein dira euskarafobia eta euskaltzaletasun modernoaren oinarriak?



Euskaldunentzako jabetze eskola

II. edizioa

IAK, 2025-10-14

Gure proposamena

- Erroak XVIII-XIX. mendeetan ezarri ziren.
- Azalpen horrek Europa mendebaleko hizkuntza gutxitu guztientzat balio du.
- (Garaian garaiko berezko osagai berriak izan arren).

Irizpideak

- Dramatismorik ez
- Presentismorik ez
- *Zilari* begiratu gabe

Bi mugimendu kontrajarri...



...baina erlazio estuan daude

- Euskaltzaletasun modernoa (euskal) eliteen euskararekiko ezaxolari eta abandonoari erantzuteko sortu zen.
- Ezaxola euskarafobia bihurtzeraino heldu zen: nola?

Arrotzen euskarafobia

- Aymeric Picaud (XII. mendean)
- *El Imparcial* egunkaria (c. 1876?)

Berbetan entzungo bazenitu,
adausika [zaunka] ari diren
txakurrekin oroituko zinateke,
hizkuntza erabat basatia baitute
(Gidor Bilbaoren itzulp.).

Foruak kentzea ez da nahikoa;
orain euren hizkuntza kendu behar
diegu.

Euskaldunen euskarafobia

- Nola sortu eta garatu zen?
- Hau gabe, arrotzen euskarafobia ez zen horren eraginkorra izango.
- 1876 arte (1841 Nafarroan) foruek eskumen handiak ematen zizkieten Probintziei (Aldundiei), hezkuntza barne.
- Euskal eliteek zergatik ez zuten beste era batera jokatu?
- Horixe ulertu nahi genuke.

Bereizi beharra

- **Eliteak**: nobleak, burgesak eta ikasketak zituen oro, elizgizonak barne.
- **Jende xehea** (klase subalternoak): botere maila txikiagoa dutenak; askotan boteretik baztertuak direnak
- Zer gertatu zen ulertzeko **eliteen hizkuntza-jokabideei erreparatu behar diegu.**

Eliteen hizkuntza-jokabideak

- Ilustrazioa baino lehen

- Axolagabekeria
- Erdaltzaletasuna
 - Pedro Lopez de Ayala (XIV. mend.)
 - Esteban de Garibay (XVI. mend.)
- Botere-muga
 - Gipuzkoako foruan (1696)
 - Bizkaiko Batzarretan (XVII. mend.)
 - Klase subalternoen aurkako erabakia

- Pedro de Madariaga (1565)

Ezin dut saihestu nire bizkaitarrekin [euskaldunekin?] pixka bat haserretzea, ez baitute gutunetan eta negozioetan erabiltzen, eta jende askori [euskaraz] idaztea ezinezkoa dela pentsarazteko arrazoiak ematen dizkiote, hizkuntza horretan liburu inprimatuak egon arren.

Eliteen hizkuntza-jokabideak **Ilustrazioan**

“Euskaldunon
hizkuntza”-tik

“Txiro eta
ikasigabeen
hizkuntza”-ra.

Ilustrazioaren on-gaitzak (I)

- Osasungintza
- Eskola
- ...



Bideta (Frantzia, 1710)

Ilustrazioaren on-gaitzak (II)

- Herriarengandik aldendu nahi
 - Kulturatik (ahozko literatura)
 - Ohituretatik (erromeriak, dantzak...)
 - Sinesmenetatik
 - ...
- Herriaren hizkuntzatik ere bai

Ilustrazioaren on-gaitzak (III)

- Iztuetak (1824) argi ikusi zuen:

Geren errian arkitzen zaiku ezertarako ere gai ez dan jendeila mota erausle [berritsu] bat, euskaldun guzien iraingarria. Itz jario motel txar oek duten iguinik aundiena da beren jaiotzako izkuntza gozoarekin sorterriko oitura oneski [zintzo] antzinakoen izena entzutea.


Ixekatzen [iseka egiten] dituzte beren asaba maitagarriak egin oi zituzten dantza gogoangarriak.

Ondorioak

- Ahal zuenak semea erdaraz ikastera bidaltzen zuen.
- Hemengo eskoletan euskara debekatzen maisua kontratatzeko baldintzetan.
 - Eraztuna: Beasain 1730, Zarautz 1773, Aia 1784, Elgoibar 1787...
 - Arrantzale edo nekazari giroko herrietan
- Kanpoan ikasitakoek hala-hola moldatzen euskaraz.
- Batzuek jadanik euskaraz ulertzen ez zutelako itxurak egiten
 - “beren buru arroak gizon andi ta jakintsu egiteagatik” dio Iztuetak.

Ondorioen ondorioak (I)

- XVIII. mendean
 - Frantsesa eta gaztelania jende fin, letradun eta aberatsen hizkuntzak.
 - Euskara baserritar, txiro eta ezjakinena.
- XIX. mendean
 - Arlotearen pertsonaia Bilbon eta Iruñean.




Ondorioen ondorioak (II)

- Jende xeheak eliteen jokabideari segituko
 - Beren hizkuntzaz lotsatuko
 - Haiek ere euskara abandonatuko
- Hegoaldean ahulago, nonbait, eta arinago
 - Belaunaldi batetik bestera
 - Araban Lautada galdu (XVIII. mend.; Landazuri 1789)
 - Nafarroan Iruñerria (XIX. mend.)
- Gainerakoan ere euskal sareak ahuldu
- Euskararen iraupena arriskuan ikusteraino

Nola sortu zen
euskaltzaletasun modernoa?

Penduluaren antzera...

- Europako eliteek herriarengana itzuli nahi, kontrako norabidean.
- Herriak gordetako ipuinak, baladak, kankak, tradizioak biltzen hasi ziren
- Herriaren hizkuntza ere bai (Dialektologia)



Berandu heldu

- Ohartzen dira zenbat galdu den ilustrazioaren eraginez.
- Jende xeheak ere eliteei jarraituz horrelakoak mespretxatzen eta ahazten hasi ziren-eta.
- Hizkuntzak ere galbidean zirela pentsatu.

- **Felipe Arrese Beitia**, *Ama euskereari azken agurrak* (1879)

Neure bihotzeko Amatxo zaharra,
antxinako ama Euskera,
Seme leial bat orain datortzu
azken agurra emotera;
Hainbeste gerra goitu ezinda
danori atsotu zara,
Zaurien zauriz galdu-galduta,
Amatxo, zuaz hiltera.

Kantuz

Euskal Herrian zehazki?

Hiru mugimendu

- Bata bestearen gainean datozen olatuak
 1. Predikazio aldia (1728tik)
 2. Herriarengana itzuli beharra (1800dik)
 3. Batasun kontzientziaren aldia (1836tik?)

Predikazio-aldia

- **Galdera:** eliteek zergatik alda zezaketen euren jarrera?
- **Erantzuna:** jende xehea kontrolpean edukitzeko.
- **Galdera:** nork berma zezakeen kontrol hori?
- **Erantzuna:** Elizak bakarrik.

Predikazio-aldia

- Bi joera batu:
 - Eliteak euskara abandonatzea
 - Elizgizonak hobeto heztea (seminarioak)
- Ondorioz, elizgizonek ere
 - euskara zaindu ez (sermoi ulergaitzak)
 - gaztelaniara pasatu
- Lekukotasunak lurralde guztietan
- Elizgizonek ere euskara abandonatuz gero, **nork heziko herri euskalduna?**
- **Hiru-laurdenak elebakar**

- Larramendi (1747)

Sinisterazo nai digute aditzen dala gaztelania, are ikasi ez dutenen artean. Ezta hori egia: alperren erausiak eta aitzakiak dirade: hitz banakaren batzuk adituagatik, aizeak daramatzi besteak.

“Deabruaren lana”

Erreakzioa

- Bi interes bildu:
 - Elizaren aldetik: Herria ondo heztea (**barneko misioak**) →
 - Erakundeen aldetik: Felipe V.aren aurrean euskaldunen bereizgarri eta pribilegioak defendatzea (**foruak**)




Larramendiren egitekoak

- Euskara estandar bihurtzea
- Sorterria goratzea
- Predikatzaile euskaldunak animatzea

Euskara estandar bihurtzea



(Janet Holmes-en sailkapena, 2001)

- **Barietatea hautatu**
 - Egitasmo plurizentrikoa: B, G eta NL
- **Hizkuntza-ezaugarriak kodetu**
- Erabilera alor berrietara hedatu, **hizkuntza-baliabideak sortuz**
- Onarpena bermatu, “haren prestigioa areagotuz, adibidez, eta jendea bere **hizkuntzarekiko harrotasuna edo leialtasuna sentitzera bultzatuz**”



Sorterria goratzeko

- Gipuzkoako Aldundiaren laguntza (1729, 1745)
- Joan Idiakezen laguntza (1728)
= *Gipuzkoar lobbya*
- Bizkaiko Aldundiaren laguntza txikia (1745)
- Gramatika Ameriketara
- “Beste” obretan zein da sorterria?
 - Gipuzkoa?
 - Hego Euskal Herria?
 - Euskal Herria?



Predikatzaille euskaldunak animatzeko




- “Barneko misioak” XVII-XVIII. mendeetan Espainian (Rico 2002)
- Helburua: herriaren doktrinatze egokia
- 1729-1730-1745 Larramendiren helburu nagusia
- 1746 Zarauzko komentua > misiolari mintegi
- 1747 Mendiburuaren *Jesusen Bihotzaren Debozioa*
 - + Larramendiren gutuna
- XIX. mendean apaizak ere bai
 - Mogel, Agirre Asteasuko, Astarloa, Gerrikoren sermoi-liburuak



2. Herriarenganako itzulera

- “Herria” antzinako baloreen babesle eta nazioaren espirituaren ikur
- “Herria” = nekazariak
- Herri idealizatu bat.
- Hizkuntza herriaren **adierazpen gorena**
- Wilhelm von **Humboldt** (1799-1801)
- Juan Antonio **Mogel**, *Peru Abarka* (1802?, 1881)
 - Peru kristau zintzoa eta euskaldun garbia
 - Maisu Juan kaletar ikasia, euskara hibridokoa
- Tradizioaren bilketa: Juan Ignazio **Iztueta** (1824)
- Tradizioaren asmakuntza (Hobsbawn 1983): Agosti **Xaho** (1836)
 - **Tubal > Aitor**
- Navarro Villoslada, *Amaya o los vascos en el siglo VIII* (1879):
 - Amaia, Amagoia, Asier, Aitor, Lorea...



3. Batasun aldia

- Iztuetarentzat “sorterria” Gipuzkoa da, **probintzia**:
 - *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia* (1824)
 - *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia* (1829?)
- XIX. mendean Euskal Herria, izenak izen, gero eta maizago
- **Hirurak bat > Laurak bat > Zazpiak bat**
- (1808) Dominique Joseph **Garat**, *Exposé succinct d'un projet de réunion de quelques cantons de l'Espagne et de la France...* **Fenizia berria**
- (1818) Juan Antonio **Zamakola**, *Historia de las naciones bascas de una y otra parte del Pirineo Septentrional y costas del mar Cantábrico*
- (1836) Xaho eta Abadiaren gramatika: «**zazpi uskal-herrietako uskalduner**»
- (1851-1879) Anton **Abadia**: **Lore Jokoak**
 - Urruña (L, 1851), Elizondo (NG, 1879)
- (c. 1860) Louis-Lucien **Bonaparteren sarea**

BAINA...

- Larramendiren izenaz ezagutzen dugun mugimendua **politikak oztopatu** zuen
 - (1767) Jesusen Lagundia kanporatua
 - (1789) Frantziako Iraultza
 - I. Frantsestea (1793-1795)
 - II. Frantsestea (1808-1814)
 - Sekularizazioa (1836)
- Ondorioak (I)
 - Litekeena baino eskasagoak
 - Lan asko argitaragabe gelditu (liburuak, gramatikak, hiztegiak...)
 - Euskara leku askotan ahuldu edo galdu

Ondorioak (2): Euskaltzaletasun modernoaren sorrera

- Euskara kohesio-faktore nagusi
- Tradizio partekatu bat bildu edota **asmatu**
- **Euskaltzale** hitza (**JJ Mogel**, 1845)
- Mugaren alde bietako euskaltzaleen arteko harremanal
 - **Bonaparteren** harreman-sarea



CARTAS ESCRITAS

POR EL PRÍNCIPE L.-L. BONAPARTE

A ALGUNOS DE SUS COLABORADORES

Cualquiera que sea la importancia que se conceda á las opiniones que, con relación á la naturaleza y estructura del vascuence, emitiera en sus trabajos el príncipe Bonaparte, y fuera mayor ó menor la perspicacia de que en ellos diera pruebas (1), es lo cierto, que pocos hombres ce han dedicado con más ahinco que él al estudio de nuestra lengua, y ninguno le ha igualado, si se exceptúa tal vez al Sr. Azkue, en la penosa é ingrata labor de recoger hechos y materiales lingüísticos que pudieran más tarde servir de base á ulteriores trabajos.

Hállanse reunidos estos materiales, fruto de repetidas y concienzudas pesquisas, en las producciones del príncipe cuya lista encontrará el lector en el n.º 2.º de esta revista (2); en las diversas versiones vascongadas de textos, en su mayoría religiosos, que publicó á sus expensas; y finalmente, en numerosos manuscritos, adquiridos muchos de ellos, á petición del señor Azkue, por las Excelentísimas Diputaciones Vasco-Navarras.

Anunció ya Mr. Lacombe la próxima publicación en esta revista de un catálogo detallado de esos manuscritos; pero el acuerdo tomado por las Diputaciones hermanas, de clasificarlos por dialectos y distribuirlos en las bibliotecas provinciales de Alava, Guipúzcoa, Vizcaya y Navarra, nos impide por el momento poner en práctica nuestro proyecto.

(1) Véase lo que sobre este particular dice el Sr. Schuchardt en «Baskische Studien», p. 2.

(2) Pág. 164, sig.

Euskaltzaletasun modernoaren sorrera

- Lorpen behinenak
 - Literatur hizkuntza: ikusmolde bateratu bat
 - Lapurtera klasikoaren eredua
 - Larramendiren gramatika-hiztegiak oinarri
 - Gramatizazioa aurrera (grafia, gramatika, lexikoa)
 - Gero eta argitalpen gehiago
 - Gero eta irakurle gehiago eta hobeak
- Aldarrikapen ausartenak (Aizkibel)
 - Ortografia bakarra
 - Euskara batua
 - Hizkuntz akademia
 - **Euskaltzain** hitza (**Hiribarren**)

